# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad



## S.O.S.1

- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Egoera bortitza jasatzen ari naiz etxean. Ezin dut gehiago eta ez dakit zer egin honekin bukatzeko. Ezin dut gehiago jasan, baina ez dakit zer egin, nora joan, norengana jo...

- Toki egokira deitu duzu, lagunduko zaitugu. Bakarrik zaude? Lasai hitz egin dezakegu?

- Tabernara jeitsi da senarra. Ordubete barru bueltatuko da.

- Zein egoeran zaude une honetan? Jo egin zaitu orain? Datorrenean joko zaitula uste duzu?

- Jo egin nau, bai, afaria prestatu gabe zegoelako. Eguerdian ez zela afaltzera etorriko esan dit. Datorrenean? Ez dakit. Ez dakit zergatik eta noiz jotzen nauen. Berak nahi duenean.

-...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Estoy sufriendo maltrato en casa. No puede más pero no sé que hacer para terminar con esta situación. No lo soporto más, pero no sé que hacer, a donde ir, a quién recurrir...

- Ha llamado al lugar adecuado, le ayudaremos. ¿Está sola? ¿Puede hablar con tranquilidad?

- Mi marido ha bajado al bar. Volverá dentro de una hora.

- ¿Cómo se encuentra en este momento? ¿Le ha pegado? ¿Cree que le pegará cuando regrese?

- Sí, me ha pegado antes de irse. Por no tener la cena preparada. Al mediodía me había dicho que no vendría a cenar. No sé si me pegará cuando vuelva. No sé cuándo ni por qué me pega. Lo hace cuando él quiere.

-...

KUNDE
EUSKAL ERAKUNDEA
VASCO DE LA MUJER

tratu txarrak / maltrato — NAHIKO! — kidetasunez bizi / vivir entre iguales
EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEEN ALDE

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

## S.O.S.2



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Kaixo, lagun batek telefono hau eman dit, arazoak ditugun emakumeei laguntza ematen diguzuelako.

- Hala da, bai. Zein da zure arazoa?

- Orain arte nere mutil-laguna izan dena izugarri jeloskorra da. Beti arazoak genituen. Aspertuta, aurreko asteburuan gure harremana utzi nahi nuela esan nion. Asko haserretu zen. Ezetz eta ezetz. Izugarria izan zen.

- Jo al zintuen?

- Beno, jo, jo esaten dena... Bultza egin zidan. Eta oihu eta garrasi pila. Besotik tira oso bortizki, eta lepoa estutu... Agian tontakeri bat da, nobio kontuak... baina beldur pixkat daukat.

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- ¡Hola!, una amiga me ha dado este número porque ayudáis a las mujeres con problemas.

- Así es. ¿Cuál es tu problema?

- El chico con el que salía es muy celoso. Siempre teníamos problemas y broncas. Cansada de ello, el fin de semana pasado le dije que quería terminar nuestra relación. Se enfadó mucho. Que ni hablar. Fue terrible.

- ¿Te pegó?

- Bueno, pegar, lo que se dice pegar... Me empujó. Me chilló y gritó. Me agarró y tiró del brazo muy violentamente, me apretó el cuello... No sé, igual es una tontería, cosas de novios y eso... Pero tengo un poco de miedo.

-...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad



# S.O.S.3

- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Kaixo. Edadeko emakume ezkondua naiz eta kontsulta bat egin nahi dut.

- Oso ondo. Esaidazu, mesedez.

- Beitu, nere senarra gero eta zakarrago dago nerekin seme-alabak etxetik joan zirenetik eta... Lotsa ematen dit, baina, diru guztia kendu dit eta berari eskatu behar diot egunero erosketak egiteko... Beti gehiegi gastatu dudala esaten dit... eta ez dakidala etxea eramat-en... Eta ni gabe zein ondo biziko litzatekeen bere pentsioarekin... eta... lehengo egunean...

- Bai, lehengo egunean...?

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Hola. Soy una mujer de edad, estoy casada y quiero hacer una consulta.

- Muy bien. Dígame, por favor.

- Mire, desde que nuestra hija e hijo no viven con nosotros, mi marido está cada vez más agresivo conmigo y... Me da vergüenza decirlo, pero me ha quitado todo el dinero y tengo que pedírselo cada día para hacer la compra... Siempre me dice que he gastado demasiado... y que no sé llevar la casa... Y lo bien que viviría el solo, sin mí, con su pensión... y... el otro día...

- Sí... el otro día...

-...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

## S.O.S.4



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Egunon, emakume gaztea naiz eta nere senarrarekin dudan egoera komentatu nahi nuen norbaitekin eta... horregatik deitu dut.... Barkatu, agian ez duzue gai hauetaz...

- Oso ondo egin duzu. Gurekin hitz egiteko gauza ez bada, esango dizugu norengana jo.

- Eskerrik asko. Hala ere, hain gai delikatua...

- Zerbitzu hau guztiz anonimo eta konfidentziala dela. Ez du inork zure hitzen berri izango. Lasai hitz egin dezakezu.

- Arazoa da... ba... zera... sexu harremanak. Berak askotan nahi izaten duela nik nahi ez dudanean eta... oso bortizki hartzen nau, mina emanez... gero eta min gehiago, gero eta zakarrago eta oldarkorrago... gero eta okerrago...

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Buenos días, soy una mujer joven y llamaba porque quisiera comentar mi situación con mi marido con alguien... Perdona, no sé si vosotras entráis en este tema...

- Has hecho muy bien. Si no podemos comentarlo nosotras, te indicaremos a quien dirigirte.

- Muchas gracias. Con todo, es un tema tan delicado...

- Este servicio es anónimo y confidencial. Nadie sabrá lo que comentes. Puedes hablar con total tranquilidad.

- La cuestión es... son... las relaciones sexuales. Mi marido quiere tenerlas muchas veces que yo no quiero y... lo hace con violencia, haciéndome daño... cada vez más daño, cada vez más violenta y forzadamente... cada vez peor...

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad



## S.O.S.5

- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Egunon. Neska gaztea naiz eta nerekin bizi den mutil-lagunarekin arazo haundi bat dut eta ez dakit zer egin

- Konta idazu ea lagun zaitzakedan.

- Ba, elkarrekin bizitzen hasi arte, dena oso ondo, oso jato-rra eta atsegina zen. Baina, elkarrekin bizitzen jarri ginenetik, gero eta arraroago dago eta ez dakit bere portaera normala den ala ez.

- Nolako "arraro"? Zer aldaketa nabaritu diozu?

- Ba, gero eta gehiago kontrolatu nahi banindu bezala. Nora noan, norekin hitz egin dudan, noiz etorriko naizen... Lagunekin egotea edota telefonoz deitzea debekatu dit, adibidez, nere gauzak berarekin soilik hitz egin ditzadan.

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Buenos días. Soy una chica joven y tengo un gran problema con el chico con el que vivo, y no sé que hacer.

- Cuéntame a ver si podemos ayudarte.

- Hasta que comenzamos a vivir juntos, fue todo muy bien, era muy majo y agradable. Pero, desde que comenzamos a vivir juntos, está cada vez más raro y no sé si su comportamiento es normal.

- ¿En qué sentido "raro"?. ¿Qué cambio has notado?

- Es como si quisiera controlarme cada vez más. A dónde voy, con quién he hablado, cuándo volveré a casa... Por ejemplo, me ha prohibido estar y llamar por teléfono a mis amigas, para que hable de mis cosas sólo con él.

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

## S.O.S.6



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Kaixo, aldenduta dagoen emakume bat naiz eta beldur handia dut.

- Zergatik? Zer gertatzen zaizu?

- Nere senar ohia berriro auzoan ikusi dute eta oso urduri nago. Ez dut lehen pasa nuena berriro pasa nahi, ez horixe. Ezingo nuke berriro guzti hura jasan.

- Zerbait esan edo egin al dizu?

- Neri ez, baina eskola atarira joan da semea agurtzera. Eta zera esan dio: laister berriro denok elkarrekin egongo garela eta elkarrekin biziko garela.

- Eta egia al da hori?

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- ¡Hola!. Soy una mujer separada y tengo mucho miedo

- ¿Por qué? ¿Qué le ocurre?

- Han visto a mi ex-marido por el barrio y estoy muy nerviosa. No quiero pasar otra vez lo que pase antes. No podría soportarlo.

- ¿Le ha dicho o hecho algo?

- A mí no, pero ha ido a saludar a nuestro hijo a la salida de la escuela. Y le ha dicho que muy pronto estaremos y volveremos a vivir todos juntos otra vez.

- ¿Es eso cierto?

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

# S.O.S.7



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Bai? Emakumeek deitzeko telefonoa al da?

- Bai, hemen da. Zer behar duzu?

- Ba, triste nago... Oso triste eta ezin dut gehiago... Eta ho-rrela bizitzeak ez du pena merezi eta... Agian... zuek ba... ulertuko didazue...

- Bai horixe. Tira, kontaidazu zergatik zaude hain triste. Zer gertatzen zaizu?

- Dena gaizki egiten dut. Ez dut ezertarako balio... eta dena aldrebes ulertzen dut... Gauzak ahaztu egiten zaizkit... eta ez dakit ezer ezertaz... Eta lur jota nago, zeren lehen zerbait nintzela uste nuen, baina orain... senarrarekin ezin asmatu eta ezin kontentatu eta... Hutsaren hurrengoa naiz.

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDAR-LE?

- ¿Sí, es el teléfono para llamar las mujeres?

- Sí, así es. ¿Qué necesita?

- Mira, estoy triste... Muy triste y no puedo más... Y vivir así no merece la pena... y... pues eso... igual... me enten-deréis...

- Claro. Cuénteme por qué está tan triste. ¿Qué le ocurre?

- Que hago todo mal. Y que no valgo para nada... y que entiendo todo al revés Que se me olvidan las cosas... y no sé nada de nada... ...Estoy hecha polvo. Antes creía que era alguien, que algo valía, pero ahora... no consigo acertar con mi marido ni tenerle contento... Soy un cero a la izquierda.

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad



## S.O.S.8

- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Kaixo, zer moduz? Soilik hitz egiteko deitu dut. Badakizu, bakarrik nago inorrekin hitz egiteko aukerarik gabe eta pixkat berriketan egiteagatik.

- Oso ondo egin duzu. Bakarrik bizi al zara?

- Ez, ez, gizonarekin. Baina bera lanean dago, eta bera gauean etorri arte bakarrik egoten naiz etxean. Lan asko egiten baitu. Oso lanpostu ona dauka.

- Baina, irtengo zara kalera, edo?

- Ba, oso gutxi. Badakizu, etxean beti dago zerbait egiteko. Hainbeste lan dago etxea batean! Esaten du nere gizonak: "Kalean, zer dago ba? Gastua! Gastua baino ez".

- Beno, eta lagunak, familia... ez al zara beraiekin egoten?

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Hola, ¿qué tal? Llamo sólo para hablar un rato. Ya sabes, estoy sola, sin nadie para charlar, y por hablar un poco.

- Has hecho muy bien. ¿Vives sola?

- No, con mi marido. Pero ahora está trabajando y hasta que regresa a la noche estoy sola en casa. Trabaja mucho. Tiene un puesto de trabajo muy bueno.

- Pero, saldrás a la calle, ¿no?

- Muy poco. Ya sabes, en casa siempre hay cosas que hacer. ¡Una casa da tanto trabajo! Además, ya dice mi marido: "¿Qué hay en la calle? ¡Gasto! Sólo gasto".

- Bueno, y amigas, familiares... ¿No hablas con ellas?

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

## S.O.S.9



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Kaixo, egunon. Odola darion zauri bat dut belarri atzean eta sendatzea nahiko nuke.

- Hori Ospitaleko Larrialdietan sendatu behar dizute.

- Ez, Larrialdietan ez. Zuek ez al duzue norbait bidaltzen, horrela parterik eman gabe edo egiteko?.

- Ez. Edozer dela ere, batetik ondo sendatzea eta bestetik, badaezbada, parte ematea komeni da hain zuzen.

- Baina, nahi gabe izan da. Belarritakoarekin deskuido txiki bat baino ez. Ez du pena merezi gehiago lardazkatzea. Aurretik ere baditut Ospitaleko Larrialdietan beste parte batzuk eta orain, huskeri honegatik, beste bat egiten badidate...

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Hola, buenos días. Tengo una herida que me sangra detrás de la oreja y quisiera curarme.

- Eso deben curártelo en Urgencias del Hospital.

- No, en Urgencias no. ¿Vosotras no enviáis a alguien para hacer la cura sin dar parte y todo eso?

- No. En cualquier caso, por un lado conviene curar bien y, por otro lado, por si acaso, dar parte de lo ocurrido.

- Pero ha sido sin querer. Un pequeño descuido con el pendiente. No merece la pena darle más importancia. Anteriormente ya tengo varios partes en Urgencias del Hospital y si me hace ahora otro por esta nadería...

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad



## S.O.S.10

- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Egunon, nere lagun baten etxetik deitzen dizuet.

- Oso ondo. Zertan lagun zaitzaket?

- Bart nere senarrak jo egin ninduen eta etxetik alde egin nuen. Lehenengo aldia zen. Ez dakit zer egin behar dudan orain.

- Ondo al zaude? Lehenengo gauza zu ondo egotea da.

- Bai, ondo nago. Lagunak eta bere senarrak sendatu ninduten eta gau osoa nerekin eman dute.

- Oso ondo. Orain, Ertzantzako komisaldegira joan behar duzu parte ematera.

- Beharrezkoa al da?

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDAR-LE?

- Buenos días, llamo de casa de una amiga.

- Muy bien. ¿En qué puedo ayudarte?

- Ayer a la noche mi marido me pegó y me fui de casa. Era la primera vez. No sé que debo hacer ahora.

- ¿Te encuentras bien? Lo primero es que tú estés bien.

- Sí, estoy bien. Mi amiga y su marido me curaron y han estado toda la noche conmigo.

- Muy bien. Ahora debes ir a la comisaría de la Ertzantza a dar parte de lo ocurrido.

- ¿Es necesario?.

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

## S.O.S.11



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- AIZAN! Nere emaztea non den jakin nahi dinat!

- Barkatu, baina zerbitzu hau ez da horretarako. Eskegi egingo dizut telefonoa.

- Zertarako den orduan? Besteen etxeetan sartzeko? Besteen bizimoduan sartu eta ondo izorratzeko, ezton? Zertan sartzen haiz besteen gauzetan?

- Barkatu, baina Giza Eskubideak guztion gauza dira.

- Giza Eskubideak? Zein eskubide? Beti bizi izan gaitun horrela elkarrekin, eta ederki bizi gainera. Zer ari haiz esa-ten hi orain?

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- ¡OYE, TÚ! ¡Quiero saber dónde está mi mujer!.

- Perdone pero este servicio no es para esto. Voy a colgarle el teléfono.

- ¿Para qué es entonces?¿Para meter las narices en casa ajena? ¿Para meterse en la vida de los demás y hundirla, no? ¿Para qué te metes dónde no te llaman?

- Perdone, pero los derechos Humanos son cosa de todo el mundo.

- ¿Derechos Humanos? ¿Qué derechos? Siempre hemos vivido así juntos, y no nos ha ido nada mal. ¿Qué dices tú ahora?

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

## Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
## Representad esta situación dándole continuidad

# S.O.S.12



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Kaixo, aurrekoan lagundu zenidaten eta orain ere laguntza behar dut. Ez dakit zer egin.

- Zertan lagun zaitzaket?

- Aldenduta nago eta denuntzia jarri nuen baina, gaur, nere senar ohiak telefonoz deitu dit. Barkatzeko eskatu dit, guztiz damututa dagoela eta itzuli egin nahi duela esan dit. Nitaz asko gogoratu dela... Aukera bat emateko... Ez dela inoiz errepikatuko. Ez naizela damutuko...

- Ez al zizun lehenago halakorik esaten?

- Bai, baina orain ezberdina da. Lehen, etxean zegoenean, jolas bat bezala zen... Orain etxetik kanpo egon da... Oraingoan egia esan didala iruditu zait.

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- ¡Hola! Me ayudasteis la última vez y ahora necesito también vuestra ayuda. No sé que hacer.

- ¿En qué puedo ayudarte?

- Estoy separada y puse denuncia contra mi ex, pero hoy me ha llamado por teléfono. Me ha pedido que le perdone, que está arrepentido y que quiere volver a casa. Que se acuerda mucho de mí... Que le de una oportunidad... Que no se repetirá lo ocurrido. Que no me arrepentiré...

- ¿Antes no te decía cosas así?

- Sí, pero ahora es diferente. Cuando estaba en casa, era como un juego. Ha estado fuera de casa... Ahora creo que lo dice de verdad.

- ...

EMAKUNDE
EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

tratu txarrak NAHIKO! kidetasunez bizi
maltrato vivir entre iguales
EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEEN ALDE

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

## S.O.S.13



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Egunon, lagun batek zuei galdetzeko esan dit...

- Bai, oso ondo. Esaidazu, mesedez.

- Nere senargaia pronto handiko gizona da eta batzuetan, batzuetan bakarrik... Asko maite nau, hori bai. Baina..., batzuetan... ai ama, hau lotsa!

- Trankil. Lotsatzekotan bera lotsatu beharko litzateke. Batzuetan...

- Batzuetan, oso gutxitan, arrazoia ematen ez diodanean eta zerbaitetan kontra egiten badiot, sutan jartzen da nerekin. Eta ez da kontrolatzen. Eta kontrola galtzen duenean, igual, ba, belarrondo batzuk ematen dizkit. Oso fuerte ez. Baina indar handia du eta...

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Buenos días. Una amiga me ha dicho que os consulte a vosotras.

- Sí, muy bien. Dime, por favor.

- Mi novio tiene mucho genio y a veces, sólo a veces... Porque él me quiere, eso sí. Pero... a veces... ay, ¡qué vergüenza!

- Tranquila. En todo caso, debería avergonzarse él. A veces...

- A veces, muy pocas veces, cuando no le doy la razón y le llevo la contraria, se pone como un energúmeno conmigo. No se controla. Y cuando no se controla, me da varios tortazos. No muy fuerte. Pero tiene tanta fuerza...

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

## Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
## Representad esta situación dándole continuidad

# S.O.S.14



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Arratsalde on. Gaua non pasa behar dut. Ezin dut etx-era itzuli.

- Oso ondo. Kontaidazu gertatutakoa, mesedez.

- Etxetik joan egin naiz. Ezin nuen gehiago. Orain dela aste batzuk aldendu nahi nuela eta paperak egin behar ge-nituela esan nion. Ordurarte ez zidan kasorik egit-en, mueble bat bezala tratatzen ninduen. Orain berriz, egun osoan dut atzetik oihuka eta garrasika. Ea zer uste dudan eta zein naizen ni bera barregarri usteko. Orain arte bapo bizi izan naizela bere lepora eta ea gainetik orain zer nahi dudan... Orduan, “¿Hau nahi duzu?” esan eta gauzak neri botaka bezala hasten da: platerak, aulkiak, irratia, argazkiak...

- Barkatu galdera, baina garrantzitsua da. Jo al zaitu?

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYU-DARLE?

- Buenos tardes. Necesito un lugar para pasar la noche. No puedo volver a casa.

- Muy bien. Cuénteme lo ocurrido, por favor.

- Me he ido de casa. No podía más. Hace unas semanas le dije a mi marido que quería separarme y que debíamos preparar los papeles. Hasta entonces no me hacía caso, me trataba como a un mueble. Desde entonces, no para de gritarme y acosarme. Que he vivido bien hasta ahora a su cuenta y a ver encima qué quiero ahora... Entonces, me grita “¿Esto quieres?” y se pone como a tirarme las cosas de casa: platos, sillas, la radio, fotos...

- Perdona la pregunta, pero es importante. ¿Te ha pegado?

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

## Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
## Representad esta situación dándole continuidad

# S.O.S.15



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Kaixo. Kontsulta bat egin nahi nuke.

- Oso ondo. Esaidazu mesedez.

- Ezkonduta nago eta alaba bat dut. Nere senarrarekin ez naiz ondo konpontzen eta, lehen noizbehinka eta orain maizago, iraindu eta jo izan nau. Orain arte isildu egin naiz eta aguantatu nere alabarengatik, baina...

- Bai. Baina...

- Batzuetan alaba joka hasiko dela iruditzen zait eta hori ez, inoiz ez. Baina ez dakit nola asmatu. Onena nahi dut alabarentzat eta nik ez dut ez dirurik ez etxetik kanpoko lanik... Orain behintzat ez zaio ezer falta. Agian pixkat bat aguantatuko banu, bolada hau ere pasako litzateke...

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Hola. Quisiera hacer una consulta.

- Muy bien. Dime, por favor.

- Estoy casada y tengo una hija. No me llevo bien con mi marido y, antes esporádicamente y ahora con más frecuencia, me insulta y me pega. Hasta ahora me he callado y he aguantado por mi hija, pero...

- Sí... pero...

- A veces me parece que va a empezar a pegar a mi hija y eso no, eso sí que no, ¡nunca! Pero no se cómo acertar. Quiero lo mejor para ella y yo no tengo ni dinero ni trabajo fuera de casa... Ahora no le falta de nada. Quizá si aguantase un poco más, esta mala época pasaría también...

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

# S.O.S.16



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Kaixo. Nere ahizpak tratu txarrak jasatzen dituela uste dut. Beno, ni ziur nago. Berak ez dit esan eta galdetzen diodanean ez dit garbi erantzuten, baina oso nabaria da. Zerbait egin nahi dut. Horregatik deitzen dizuet.

- Eskerrik asko deitzeagatik. Zer nabaritu duzu?

- Ubeldurak eta golpeen arrastoak. Ondo makilatuta eta disimulaturik, baina nere ahizpa da, ondo ezagutzen dut. Beti aitzekiak jartzen ditu: erori dela, erre egin dela, eskumuturra okertu egin duela... Ez da posible hainbeste kasualitate!. Gainera beldurrez bizi da, izututa dago. Gero eta gehiago. Senarra ez dagoenean egon gaitezke bakarrik. Bera baino lehenago itzuli behar du etxera derrigorrez... Negar asko egiten du. Negar batean bizi da.

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Hola. Creo que mi hermana sufre maltrato. Bueno, yo estoy segura. Ella no me ha dicho nada y cuando le pregunto no me contesta claramente, pero es muy evidente. Quiero hacer algo. Por eso he llamado.

- Gracias por llamar. ¿Qué has notado?

- Moratones y huellas de golpes. Bien maquillados y disimulados, pero es mi hermana, la conozco bien. Pone excusas: que se ha caído, que se ha quemado, que se ha torcido la muñeca... ¡No es posible tanto accidente y tanta casualidad! Además vive con miedo, está aterrada. Cada vez más. Sólo podemos vernos cuando no está su marido. Tiene que volver a casa antes que él como sea... Llora mucho. Vive en un mar de lágrimas.

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

## S.O.S.17



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Egunon, galdera bat egin nahi nuke.

- Oso ondo. Galde iezaidazu, mesedez.

- Nere bizilagun baten etxean zerbait gertatzen dela uste dut. Zer egin dezaket?

- Eskerrik asko deitzeagatik. Zer somatu duzu?

- Ez dakit, kolpeak bezala eta negar zotinak, negar isilak. Garrasirik gabe, baina danbatekoak, bultzadak, ez ohizko zaratak, "ai-ai!" batzuk eta gero isiltasuna.

- Orain baino lehenago sentitu al dituzu halakoak?

- Noizean behinka zeozer agian, baina ez azken astean bezain jarraian eta nabari.

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Hola. Quisiera hacer una pregunta.

- Muy bien. Pregunta, por favor.

- Creo que pasa algo en casa de una vecina. ¿Qué puedo hacer?

- Gracias por llamar. ¿Qué has notado?

- No sé claramente, golpes y lloros, llantos acallados. Sin gritos, pero ruidos no habituales, como golpes, empujones, algún "¡ay!" y luego silencio total.

- ¿Habías sentido algo parecido con anterioridad?

- Quizá alguna vez, pero no con la intensidad y frecuencia de esta última semana.

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

## Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
## Representad esta situación dándole continuidad

# S.O.S.18



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Egunon, neska gazte bat naiz, nere nobiorekin arazo bat daukat eta kontsulta bat egin nahi nuke.

- Oso ondo. Kontaidazu, mesedez.

- Beti berak nahi duena egin behar dudala.

- Esan al diozu inoiz zuk ez duzula nahi?

- Horri! Ezta pentsatu ere ez! Ona jarriko litzateke! Lehengo igandean diskotekan tipo bat jipoitu zuen ni begiratzeagatik. Eta beste behin, besoa hautsi nere mutil-lagun ohiari...

- Eta zergatik zaude berarekin?

- Asko maite nau. Nigatik edozer gauza egingo luke. Eta bihotz onekoa da. Astoa, baina bihotz onekoa.

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Buenos días, soy una chica joven y quisiera hacer una consulta sobre un problema que tengo con mi novio.

- Muy bien. Cuéntame, por favor.

- Que siempre tengo que hacer lo que el quiere.

- ¿Le has dicho alguna vez que tú no quieres?

- ¡A ése! ¡Imposible! ¡Menudo se pondría! El domingo pasado le dio una paliza a uno por mirarme... Y, otra vez, le rompió el brazo a mi novio anterior...

- ¿Y por qué estás con él?

- Me quiere mucho. Haría cualquier cosa por mí. Y tiene buen corazón. Es un bruto, pero de buen corazón.

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

# S.O.S.19



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Egunon, kabina batetik ari naiz. Ez dut denbora asko.

- Oso ondo. Esaidazu, mesedez.

- Nere amak eta izebak nere senarrak noizbehinka ni jotzea normala dela esaten didate. Beti izan dela horrela eta ez kexatzeko, gizon ona tokatu zaidala ez duelako gerrikoa eta halakoak erabiltzen, soilik esku hutsak. Egia al da beti horrela izan dela? Horrela dela etxe guztietan?

- Ez, ez da egia.

- Eta merezi dudalako jotzen didala? Nik ez dut ulertzen zergatik jotzen nauen, gehienetan ez dakit zer egiten dudan gaizki, baina amak zerbait egingo nuela esaten dit beti. Egia al da?

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Buenas, llamo de una cabina. No tengo mucho tiempo.

- Muy bien. Dime, por favor.

- Mi madre y mi tía me dicen que es normal que mi marido me pegue de vez en cuando. Que siempre ha sido así y que no me queje, que me ha tocado un hombre bueno que sólo usa las manos y no el cinturón. ¿Es verdad que siempre ha sido así? ¿Que pasa en todas las casas?

- No, no es verdad.

- ¿Y que me pega porque me lo merezco? Yo no entiendo porque me pega, la mayoría de las veces no sé que he hecho mal, pero mi madre me dice siempre que algo habré hecho. ¿Es verdad?

- ...

# EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad



## S.O.S.20

- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Kaixo. Nik, nik... ez dakit nola esan. Ez zait inoiz halakorik gertatu. Nere senarra pertsona ezaguna da, oso lan ona dauka, ospetsua da. Ni zoriontsu izan naiz berarekin...

- Baina... Segi, mesedez.

- Bart jo egin zidan. Tontakeriak esaten ari nintzela eta histerika jartzen ari nintzela esan zidan.

- Zein ziren “tontakeri” horiek.

- Sendagilea naiz eta lanean hasi nahi nuela esan nion, ez nituela etxean egoteko nere ikasketak egin. Mesprezuz hitz egin zidan, kaka banintz bezala. Bultza egin zidan eta erori nintzanean, ostikoka hasi zen. Ezin dut sinetsi. Ez zela gertatu iruditzen zait. Amets gaizto bat izan dela.

- ...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Hola. Esto... yo... no sé como empezar. Nunca me ha ocurrido algo así. Mi marido es una persona conocida, tiene un buen trabajo, es famoso. Yo he sido feliz con él...

- Pero... Siga, por favor.

- Ayer a la noche me pegó. Me dijo que estaba diciendo tonterías y que me estaba poniendo histérica.

- ¿Que “tonterías” dijo?

- Soy médica y le dije que quería empezar a trabajar, que no hice mis estudios para quedarme en casa. Me habló con desprecio, como si fuera una caca. Me empujó y, cuando me caí, me dio varios puntapiés. No me lo puedo creer. Me parece que no pudo pasar, que es un mal sueño

- ...

KUNDE
N EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

tratu txarrak
maltrato
NAHIKO!
kidetasunez bizi
vivir entre iguales
EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEEN ALDE

S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.
S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.
S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.
S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.
S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.
S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.
S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.S.O.S.